



Azpeitiko Udala

AGIRRE EREMURAKO UDAL-ETXEBIZITZA ALOKATUEN AMORTIZAZIORAKO DIRU-LAGUNTZA (2021OROK1956).

Udalbatzak 2011ko otsailaren 3an egindako bilkuran Ibai-Eder kalea, 3ko sustapenean araubide orokorreko babes ofizialeko 18 etxebizitza (BOE), beren garaje eta trastetegiekin, alokairuan zozketatzeko baldintzak onartu zituen.

Etxebizitza publikoen sustapen hori "ahalbide txikiena dutenei laguntzeko programa"ren baitan onartu zen, eta ezarri ziren alokairu prezioak % 15a jaitsi ziren. Hargatik, eta sustapenaren amortizazioak dirauen bitartean akordio berean onartu zen Udalak urtero 27.000 €-ko diru-laguntza zuzena emango ziola Azpeitia Berritzen S.A.ri (programaren kudeatzailea).

Nolanahi ere, 2013ko ekitaldirako amortizazio kopuruak baloratu ondoren, Udalbatzak 2013ko abenduaren 3an egindako bilkuran onartu zuen kopuru hori aldatzea eta Azpeitia Berritzen S.A.k programa honetan duen defizitari aurre egiteko portzentaiari dagokion kopuru zehatza ematea. Geroztik, urtez urteko udal-aurrekontuak ekarpen hori egiteko partida berezia jaso dute.

2021. ekitaldirako aurrekontuak 53.000 €ko kontsignazioa egina du, 0201.433.152.1001 2021 Azpeitia Berritzen etxebizitzak alokatzea.

Azpeitia Berritzen S.A.ren izenean Iñaki Zabaleta Biainek 2021eko urriaren 1ean egindako idatziaren bidez aurtengo urterako amortizazio kopuruak aurkeztu ditu, eta Udalari jakinarazi dio programa honen baitan duen defizita % 29,16koa dela, guztira 52.488,00 €-koa. Defizitaren arrazoia programa honetan oinarritzen da.

Egindako txostenak jarraituz, eta eskumenari dagokionean Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikuluan dioena aintzat hartuta, **NAGORE ALKORTA ELORZA** Azpeitiko Udalaren alkate-udalburuak, **ERABAKI DUT:**

Ibai-Eder kalea, 3ko sustapenean ezartzen den "ahalbide txikiena dutenei laguntzeko programa"ren baitan 2021. ekitaldian Azpeitia Berritzen S.A.k duen % 29,16 defizitari aurre egiteko 52.488,00 €-ko ekarpena egitea.

Justifikatutzat eman da diru-laguntzaren xedea, eta espediente osoa udalaren baltzua den Azpeitia Berritzen S.A.n jaso da.

Azpeitia, 2021eko urriaren 15a